

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aitziber Garmendia Mendizabal

*Zaldibia,
Gipuzkoa
(1982)*

Aurkibidea



Biografia



Zaldibian jaioa, guraso biak bertakoak ditu. Bi ahizpatan zaharrena. Ume-umetatik izan du antzerkirako griña. 13 urterekin Beasaingo antzerki eskolan hasi zen, eta 15 urterekin aktore ikasketak egiten Donostian, TAEn. Zuzenbidea ere ikasi zuen, baina ez du horretan lanik egin. 18 urterekin Tantaka antzerki taldearekin hasi zen lanean eta 19 urterekin EITB-n, "Martin" telesailean. Handik hona hamaika lanetan ibili da antzerkian, telebistan zein zineman. Aktore eta umorista ezaguna da Euskal Herrian. Aktore moduan ez ezik, gidoilari lanetan eta aurkezle moduan ere jardundu. Bere ibilbideari buruzko elkarrizketa egin diogu Aitziberri, antzerkigintzaz eta bizitzaz. [Bideo hau](#) osatu dugu bere testigantza batzuekin.

Zintak

ZDB-021

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-09-17
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Guraso biak Zaldibiakoak

- **Erref:** ZDB-021/002
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:00:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gurasoak Zaldibiakoak ditu biak. Odoleko bi ahizpa dira, baina ahizpa 'postizoa' ere badauka.</p>

2. Umetatik garbi zuen aktore izan nahi zuela

- **Erref:** ZDB-021/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:56. **Bukatu:** 00:02:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Familian ez zegoen antzezlerik, baina berak umetatik argi zeukan taula gainera igo nahi zuela, jendeari barre eginaraztera.

Transkripzioa

- Eta zure, bueno, antzerki zaletasuna eta - ez? - aktore izateko grin hori ta, e... umetan sortu zan? Ze... Zure inguruan bazegoen norbait familian, e...
- Inor ez, ke ba !
- ... ala, hola, sen hori zeukana umorerako, edo?
- Ez, ba egia da nire ama beti oso.. nirekin oso jolaste aldekoa izan dala eta oso teatrera zentzu hortan, ez da horta dedikau baiño bazeuken ba igual kutsu hoi, ez? E.. ba beti elkarrekin pailazona eitten ta... hola ibiltzen giñelako. Baiña bestela ez neuken inor ingurun hola... horta dedikatzen zanik, behintzet. Baiño garbi neuken, eske garbi neuken, eszenario bat ikusi orduko berta igo beharra neuken o... kamara bat ikusi orduko... arpegi imposible guztik probatzen hasten nintzen. O sea.. Baneuken zeoze barrun esaten zitena: "nik hau nahi det eta ni... honta dedikau nahi det". Gero ya aurreraxeo antzerkin hasi nintzen, baiño ba ya koxkortutakon, hamar-hamaika urtekin.
- Eta, e... adibidez Txiribiton...
- Bai, bai.
- ... zuk beti esandakoa da Txiribiton e... izan nahi zenuela, ez?, edo bueno, hori zela zure...
- Bai.
- ... ume-umetan.
- Txiribitonek kriston grazia itten ziten eta... karo, amai esaten nion nik berdiña nahi nun nik, e... nire griña zan, ya txiki-txikitatik, jendeai parre eginaraztea, eta hori neuken garbi, hori nahi nula.

3. Txiribiton, bere idoloa umetan

- **Erref:** ZDB-021/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Txiribiton zen bere idoloa, umetan, eta gero Lina Morgan eta ondoren Elena Irureta.

Transkripzioa

- Bai, Txiribiton zan nere... nere idoloa momentu hortan. Ez dakit zenbat urte eukiko nittun, ba lau-bost bat. Eta nola parregurea ematen ziten ta nere... ba griña haundiña parre egiñaraztea zan, esaten nion amai: "Ama, nik haunditan izan nahi det gizona eta potoloa". Eta ni gogoratzen naiz amak esan zola - bueno, nahiko ondo enkajau zon, garai hartan -: "Bueno, bale, benga". Ta geo ya aurreaxego Lina Morgan ezautu nun ta esan nion: "Ez, ama, ez det nahi izan gizona, nahi det izan Lina Morgan bezela", eta amak esan zon: "Bueno, errexago". Eta hola hasi zan bidea.

- Eta zein... eee, ez?... eta hurrengo zein izan a, Lina Morganen ondoren...?

- Lina Morganen ondoren ya Elena Irureta, ta ya amak esan zon: "Ondo, ondo, ai gea gerturatzten". Porke lehena izan zan gizona ta... ta... eta gero ya emakumea, baiño... behintzat bertakoa ya Elena Irureta, ta esan zun: "Ba! Ya ai gea gertuatzen, etxea gerturatzten ai gea, umea arraston sartzen ai da", nolabait.

4. Segura irratian, 9 urterekin

- **Erref:** ZDB-021/007
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Segura irratira eta Euskadi irratira deitzen zuen. 9 urterekin lokutora moduan parte hartu zuen Segura irratiko Gabonetako programa batean.

5. Lehenengo antzezlan 11 urterekin, Zaldibian bertan

- **Erref:** ZDB-021/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Herri eskolan lehen antzezlan egin zuen, lagun batekin: Maripuri eta Euxebio. Pastelak irabazi zituzten.

6. Zaldibiako bertso eskolan ibilia

- **Erref:** ZDB-021/009
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Zaldibiako bertso eskolan ibili zen. 11-12 urterekin bertso txapelketa bat irabazi zuen, eta bertsoak kantatzera igo zen oholtzara. Imanol Lazkano bertsolariak jantzi zion txapela.</p>

7. Beasaingo antzerki eskolan, 13 urterekin

- **Erref:** ZDB-021/010
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Beasaingo antzerki eskolan hasi zen Anuska lagun arekin batera, 13 urterekin, 15 urte zituztela esanda. Lagunak berehala utzi zuen, baina berak ez. Egia jakin arren, ez zuten bota. Dario Foren lan bat antzetzu zuten. Asko ikasi zuen sexuaz.

8. 15 urterekin Hamlet irakurri zuen

- **Erref:** ZDB-021/011
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

15 urterekin Hamlet irakurri zuen, institutuan. Berak aukeratu zuen zer irakurri.

9. Antzerkia oso terapeutikoa da

- **Erref:** ZDB-021/012
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Ikastetxeetan antzerkia lantzea inportantea dela dio. Antzerki klasetan jende asko ezagutu du antzerkia terapia moduan hartzen duena. Emozioak lantzearen garrantzia. Norbere burua ezagutzeko eta besteekin enpatizatzeke balio du antzerkiak.</p>

10. Aktore ikasketak eta Zuzenbidea

- **Erref:** ZDB-021/014
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Aktore ikasketak eta Zuzenbidea ikasi zituen, Donostian. 18 urte behar ziren TAEn sartzeko, baina 15 urterekin hasi zen bera, lata ederra eman eta gero. Lanean zebilela egin zuen Zuzenbideko karrera.

11. 18 urterekin Tantakarekin lanean

- **Erref:** ZDB-021/015
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:19:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Antzerkian hasi zen lehenengo, Tantaka antzerki taldearekin, 18 urterekin. 19rekin, berriz, Martin telesailean. Elena Irureta eta Joxe Ramon Soroiz aktoreak ziren bere gurasoak telesail horretan.

12. Telebista eta antzerkia

- **Erref:** ZDB-021/017
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:38. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Antzerkia egin zuen lehenengo eta gero telebistan hasi zen: teknika eta errejistro diferenteak dira. Egindako antzerkien kontua galduta dauka.

13. "Emakumeak izarapean" eta "Erlauntza" antzezlanak

- **Erref:** ZDB-021/019
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:21:18. **Bukatu:** 00:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Markatu duten antzezlan batzuk aipatzen ditu: "Emakumeak izarapean", emakumeen sexualitatearen inguruan; Mireia Gabilondo zuzendaria. "Erlauntza" antzezlan. "Uda gau bateko ametsa" antzezlan ere aipatzen du.

14. Telebistan antzeztu dituen pertsonaia gustukoak

- **Erref:** ZDB-021/021
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Telebistako pertsonaia eta lan batzuk aipatzeko eskatuta, "Martin" telesaila aipatzen du. Kariño berezia dio Gorane pertsonaiari ("Zuek hor" programarako sortua). "La Jaio" bere ahizpa da. Aitona artzainak gazta egiten zuen etxeo sukaldean eta bitartean ahizpak musika topera entzuten zuen gelan. "Zuriñe" pertsonaia gotikoak harrera ona izan du gaztetxoaren artean.

15. Gidoilari lanetan telebistan; umorea egitearen mugak

- **Erref:** ZDB-021/022
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:32:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Gidoilari lana ere asko gustatzen zaio, eta pertsonaiekin inprobisatzea ere bai. "Batek daki" programarako bakarriketak egitea eskola handia izan zen. Umorea inor mindu gabe egitea ez da posible.

16. Aurkezle lanetan izandako bizipenak

- **Erref:** ZDB-021/023
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

"Batek daki" programan aurkezle lanetan ibili zen, eta ez zen pertsonaia bat. Maskararik gabe jardutea ez zen erraza izan gai batzuekin lotuta: amatasuna, ebakuntza estetikoak... Amatasunaren kapituluan inbadituta sentitu zen: "Aitziber Garmendiak amatasunaren dituen dudak".

17. Antzerkia, telebista eta zinema

- **Erref:** ZDB-021/025
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:39:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Antzerkian jaio zen arren, telebista eta zinema ere gustuko ditu. Antzerkiaren abantaila: bat-batekotasuna. "Zinemak ez du gezurrik onartzen", planoak oso gertukoak direlako eta momentu batean eman behar delako dena.

18. Euskarazko zinemagintza

- **Erref:** ZDB-021/026
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:39:58. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Euskarazko zinemagintzako mugarren artean "Aupa Etxebeste" aipatzen du. Komedia ez dago nahikoa baloratuta, bere ustez. "80 egunean" filma ere izugarri gustatu zitzaion.

19. "Sukalde kontuak" filma

- **Erref:** ZDB-021/027
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:43:14. **Bukatu:** 00:44:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Aizpea Goenagak zuzendutako "Sukalde kontuak" pelikulan hartu zuen parte. Casting-a.

20. "Txarriboda" filma eta indarkeria matxista

- **Erref:** ZDB-021/028
- **Iraupena:** 0:07:03. **Hasi:** 00:44:28. **Bukatu:** 00:51:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

"Txarriboda" filmean ere egon zen: indarkeria matxistari buruzkoa zen, eta senargaiak bera hiltzen zuen. Oso gogorra egin zitzaion bai hilketaren eszena eta baita tanatoriokoa ere. Gorputza abandonatzea oso gogorra egin zitzaion.

21. 6 antzezlanekin eta 12 bertsiorekin batera

- **Erref:** ZDB-021/030

- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:51:52. **Bukatu:** 00:53:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Elkarrizketaren garaian sei antzezlanekin zebilen aldi berean, eta 12 bertsiorekin. Eromena dela dio, baina zaila dela ezetz esatea, oso lanbide gorabeheratsua delako. "Fondoko karrera" moduan ikusten du.

22. Lanbide gogorra, gorabeheratsua

- **Erref:** ZDB-021/031
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:53:33. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Lan asko egin du gustatzen zaion horretara dedikatzeko. Amarekin garbiketa lanetan ere ibili izan da, lanik ez zuen garaian.

23. Madrilera joanda sentitu daitekeena

- **Erref:** ZDB-021/032
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:57:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

<p>Madrilera joatea, castingak edo ikastaroak egitera: ezezaguna izatearen abantailak eta desabantailak aipatzen ditu.</p>

24. Gaztelaniaz nahikoa lan, lehen funtzioetan

- **Erref:** ZDB-021/033
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:57:21. **Bukatu:** 01:00:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Gaztelaniaz askoz hobeto moldatzen da orain, baina dikzio-klaseak hartu zituelako bi urtez, Madrilén. "Euskara bakarrik jakiteak ez nau euskaldunago egiten". Gero eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto.

25. Batua eta euskalkiak

- **Erref:** ZDB-021/034
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:00:54. **Bukatu:** 01:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Batua eta euskalkiak. Euskalkizale amorratua dela dio. Hainbat euskalki landu ditu bere pertsonaietan. Batua ere beharrezkoa da.

26. Euskaldunak gaztelania hutsez sare sozialetan

- **Erref:** ZDB-021/036
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:03:00. **Bukatu:** 01:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ez du ulertzen nola gazte asko euskaldunak izanda gaztelania hutsez aritzen diren sare sozialetan. Chicagon azaldu behar izan zuen euskara nondik datorren, eta harro sentitu zen.

27. Sare sozialen esklabu

- **Erref:** ZDB-021/037
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:05:43. **Bukatu:** 01:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialen esklabuak garena dio. Oso baliagarriak dira saltzeko, baina morrontza bat eskatzen du. Aktore izan ez balitz ez lituzke Instagram eta Facebook izango. Pantaila atzean ezkututzen dira gazte asko, aurrez aurreko komunikazioaren kaltetan.

28. Teknologia ekarritako bizimodu aldaketa

- **Erref:** ZDB-021/038
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:08:32. **Bukatu:** 01:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

<p>Bizimodua asko aldatu da urte gutxian, teknologia berrien eraginez. Gazteek barruko estimuloei kasu egiteko arazoak dituztela ikusten du, kanpora begira bizi direlako.</p>

29. Zaletasunak

- **Erref:** ZDB-021/039
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:10:12. **Bukatu:** 01:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Antzerkia eta zinema ikustera joatea gustatzen zaio. Irakurzalea da. Familia eta lagunak dira bere altxorrik handiena. Ez da oso parrandazalea izan. Greace gustatzen zitzaion, bere lagunei Su ta Gar gustatzen zitzaienean. Orain parranda egiten du, bere lagunak umezain dauden bitartean.

30. Ahizpa-alaba arduratsuaren rola

- **Erref:** ZDB-021/041
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:12:21. **Bukatu:** 01:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Familiako "antzezlanak": ahizpa-alaba arduratsuaren rola egokitu zaio eta asumitu duen karga hori soltatzeko ahaleginetan ari da orain.

31. Zoriontasuna aukeratu egiten da

- **Erref:** ZDB-021/042
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 01:14:05. **Bukatu:** 01:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

<p>Zoriontasuna aukera bat dela dio. Anuska laguna ingesatuta egon zen, eta konturatu zen zoriontasuna nahi duzun lekuan nahi duzun pertsonarekin egotea dela. Erruduntasun sentrazioa da zoriontasunetik urruntzen gaituena.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com